

## Sarrera

**J**AZTEN honetan eta hurrengoan AEDk bere 10. urteurrena ospatzeko egitasmoan antolatu dituen Jardunaldietako ponentziak jasotzen dira.

Hamar urte ez dira alferrik pasa. AEDren proiektua arrasatear askok beretzat hartua du eta Udalerritik kanpora ere eredutzat joa dago.

Urte hauetan euskaldunontzat beharrezko diren makina bat ekitaldi bideratu du: euskaraz antolatutako zerbitzuak batetik eta, bestetik, han eta hemen euskarari tratamendu duina eman dakion plangintzak bultzatu.

Egunez egun egindako bide honetan, Arrasate Euskaldun Dezaguentzat pozgarria da 10. urtean osasun ederrarekin aurkeztea.

Atsegina da euskara eta euskal kultura garatzeko, zabaltzeko eta gozatzeko euskaltzaleon helburuetan bateginik, egunetik egunera, adiskide, bazkide eta lankide gehiagoren partaidetzarekin kontatzea. Itxaropentsua da Arrasaten euskararen erabileraren ugalmena antzematea azterketek diotenez, baita gutako bakoitzak kaleetan nabaritzea ere.

Zalantzarik ez dago egitasmo guztiak, ekin-tza guztiak ez dutela pixu eta eragin berdina: euskalduntze ikuspuntutik, aurrekontu aldetik

edo eskulan aldetik. Euskara Elkarteetako bazkideek jarri dezaketena eta jartzen dutena kuotaz aparte jendearen lana eta partaidetza da. Diru beharrak, egitasmoetan ados izanik, beste erakundeetatik jestionatzen saiatzen da, batez ere Udalarekin, berarekin elkarlanean jardunaz.

Lehen esaten genuen Arrasatetik kanpora AEDk oihartzunik izan duela. Esan behar dut Euskara Elkarteak errealitate bihurtzen ere ari direla. Hainbat herritan antzerako elkarteak osatzen dabilta eta gaur egun badira sorturik 40ren bat Euskara Elkarte, euskararen erabilera areagotzeko jardunean dabiltzanak urte askotan batzuk eta gutxiagotan besteak. Jardunaldi hauetan Euskal Herri zabaleko partaidetza izateak ere esku artean daramagun proiektuaren interesa nabarmentzen du.

Erakunde antolatzailearen lehendakari naitzen partetik eskerrak ematea tokatzen zait ponentziak landu dituzuenei; antolatzaile lanetan aritu direnei; diruz, azpiegituraz edo aholkuz lagundu digutenei eta partaideei, noski. Eskerrak denoi gudan jarri duzuen konfidantzagatik.

Lan patxadatsua eta sakona egitea espero dut denok fruitu oparoak lortu ditzagun.

*Joxe Mari Mujika*

AEDko lehendakaria